




# Trabak, behera





**ETE laguntzak  
2022  
ayudas PYME**

Oso ETEzaleak gara!



**+75** laguntza-programa  
**+600** milioi euro

Informa zaituz

[www.euskadi.eus/ekogarapena](http://www.euskadi.eus/ekogarapena) · [www.spri.eus/ekogarapena](http://www.spri.eus/ekogarapena)



# ETXEBERRIA

## EHORZKETA-BEILATOKIA

**943 741 327 (24 orduz)**

**635 756 295**

**629 635 203**

Santa Klara, 16 - Elgoibar  
[info@funerariaetxeberria.com](mailto:info@funerariaetxeberria.com)  
[www.funerariaetxeberria.com](http://www.funerariaetxeberria.com)

Kutxak, trasladoak eta koroak.  
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.  
Erietxe zentruetan zerbitzuak.

# Osasun gida



RPS233/13

**943 366 377**

San Bartolome, 22  
20870 Elgoibar

## NATUR HOUSE

**Ainara Iriando Ansola**

GIZA ELKARERAN ETA  
DIETETIKAN DIPLOMATUA

RPS 203/16

Toribio Erakunde, 22  
Eibar

**677 551 850**



## fisio&más

Fisioterapia aurroratza eta  
Kirol Berregokitzoa



Trebede kalea, 18  
**943 740 101 / 667 953 628**  
[www.fisio-mas.com](http://www.fisio-mas.com)

RPS 177/02

RPS 271/12

**ainhoa**  
fisioterapia

Jausoro plaza, 6 behea  
Elgoibar

**943 531 953**  
**669 565 745**

RPS 183/12

**Uzuri**  
optika audio

Elgoibar  
**943 740 359**

Deba  
**943 192 192**

**Jeku**  
eder

hartz klinika

RPS 173/12

Elena Herrero Lobo

Aita Agirre Errepublikan, 5 - Elgoibar

**943 530 053**

federópticos

**ikus**

RPS 65/07

San Bartolome, 10  
Tel: 943 743 734

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.  
20870 ELGOIBAR - 943 744 112  
Publizitatea: 943 743 704  
[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)  
[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)  
[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitako erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzurika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasola, Maialen Sanchez. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.885 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



[facebook.com/barrenaldizkaria](https://facebook.com/barrenaldizkaria)



[twitter.com/barreneus](https://twitter.com/barreneus)



[instagram.com/barrenaldizkaria](https://instagram.com/barrenaldizkaria)

Ane Kortaberria

Ikasle ekintzailea

## Hego Korearrak ez dira uste bezalakoak



***“Bidaiatzeak, pertsona eta kultura ezberdinak ezagutzeak, garapen pertsonalean izugarritzko eragina eragiten du”***

Munduaren beste aldean dagoen herrialde honi buruz askotan entzun dut hemengoak pertsona hotzak eta oso leihakorrak direla. Aurreiritzi hauen ondorioz, ez zait inoiz hona bidaiatzeko ideia burutik pasatu, Unibertsitateak aukera hau eman didan arte.

Bidaiaren helburuak proiektuak taldean garatzea, kultura hegokorearra ezagutzea eta ekintzaile lokalekin kontaktua izatea izan dira. Beraz, hemengo esperientzia bizi ostean, iritzi aldatu dudala esan dezaket, herrialde honetara etortzeak merezi izan duela berretsiz. Izan ere, aipatutakoaz gain, nire kasuan beste helburu batekin ere etorri naiz: gizartean eta pertsonetan eragin positiboa eragin dezakeen proiektu bat lantzea.

Hona etorri aurretik, askok merkatu hegokorearrean proiektu sozial bat lantzea oso zaila zela errepikatzen zuten behin eta berriz, baina Instagramen hainbat bilaketa egin ostean, Seoul bezalako hiri handiek eragiten duten antsietate edo depresiotik alde egiteko, hiri-eremuetatik urrunduta dauden “Gazte Herrixka” kontzeptuarekin egin nuen topo. Horrela, herrixka hauetan sortu dituzten programa eta proiektu ekintzaile desberdinen arrakasta aztertzeak aukera izaten ari naiz Aretxabaletako taldekide batekin batera, aurrerago Euskal Herriko egoerara aplikatzeko helburuarekin.

Gainera, gezurra dirudien arren, gazteon ongizateari buruzko elkarrizketa sakon ugari izan ditugu. Hau da, orokorrean izaeraz pertsona itxiak direla nabarmena da, baina harreman gertukoagoa lortuz gero, oso eskuzabalak, irekiak eta erronkazaleak ere badirela ikus daiteke. Beraz, munduaren beste puntan bada ere, pertsona ezagunekin berdintasun eta loturak sortzea posible dela esan dezakegu.

Argi dago bidaiatzeak, pertsona eta kultura ezberdinak ezagutzeak, garapen pertsonalean izugarritzko eragina eragiten duela, eta noski, ez dago aurreiritziak berregituratzeko modu hoberik.

Hortaz, aukerak aprobetxatzeko daudela aipatzea besterik ez zait falta. Askotan sinisten dugun horretan lan egiteko aurrerapausoa ematea zaila izaten da, baina gure esku dagoena eginda, zehaztutako helburuetara gerturatzeko aukera gehiago izango ditugu seguraski.

*BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus*

-----

## XXVII. Jose Gurrutxaga krosa

Elgoibar Ikastolaren izenean eskerrak eman nahi dizkiegu joan den igandean, maiatzaren 15ean, ospatutako XXVII. Jose Gurrutxaga Krosa antolatzen lagundu zuten guztiei: BM, Danobat Group, BESA, Acorta Forging Group, Elgoibarko Udala, Elgoibarko Udal Kirol Patronatua, Kutxabank, El Diario Vasco, Original, Bronymec, Mancisidor, Cordon-Vilarchao, Egotoki, Gare Radio Club, Santi Arriola, Elgoibarko Lagun Taldea eta Industrias Banat.

Bestalde, gure eskerrik beroenak baita ere parte-hartzaile guztiei. Datorren urtean, martxoaren 26an ospatuko dugun, XXVIII. Jose Gurrutxaga Krosa antolatzen laguntzeko prest egongo zaretelakoan, agur bero bat.

**Jose Gurrutxaga Krosa Batzordea**

## Karakate Bizirik nahi dugu!

Karakate mendi gainean eraiki nahi den zentral eolikoari aurre egiteko sortu da Elgoibarko Karakate Bizirik herri-plataforma, Morkaiko Mendi Elkartearen oniritziarekin eta babesarekin.

Herritar gehiengoarentzat aski ezaguna da Karakate mendigainak berezko duen natur eta kultur ondasuna, baina, itxura denez, hori ez da nahikoa lur-eremu paregabe hori babesteko, eta, duela 20 urte egin zuten moduan, berriz ere berpiztu dira mendilerroaren zati batean eolikoak jartzeko asmoak.

Karakate ingurua bere osotasunean babestua izateko motibo ugari dago, interesgune garrantzitsuak baititu, kultura- eta zientzia-

mailakoak guztiak ere. Balio geologiko, arkeologiko, etnografiko handiko mendikatea da adituen ustetan; naturgune ederra, kirola eta aisialdia batzen dituena. Azken urteetan, gainera, Dolmenen Ibilbidea ere sortu dute, turismorako balio erantsia ematen diona.

Energia berriztagarriak asko dira eta beraiek kudeatzeko politika-ereduak ere askotarikoak izan daitezke. Hartara, herri-ekimen honen asmoa energia-arazoei eta -konponbideei buruzko gogoeta suspertzea eta bide berrietan pausoak indartzea ere bada. Egungo erronkei buruz hausnartzeko aukera ere ematen digu Karakatek.


Hori bai, ez dugu lurraren eta ondasunen suntsipenarekin hasten den energia berriztagarri politika honekin bat egiten. Energia berriztagarrien oinarrizko printzipioa naturari zor diogun errespetua da, eta horrek ingurugiroan ahalik eta kalte gutxien eragitea dakar berarekin.

Bi haize-errota erraldoik ez diote gure energia-horniketaren erronkari irtenbidea emango, eta horiek jartzeak sortuko lukeen natur- eta kultur-hondamendia atzerazina izango litzateke.

**Elgoibarko KARAKATE BIZIRIK herri-plataforma**

**BARREneko harpidedunentzako oharra**

Buzoiko **B** pegatina falta bazaizu edo hondatuta baduzu, **BARRE**nen bulegora etorri eta berria emango dizugu. Banaketa sistema errazteko behar-beharrezkoa dugu zuen buzoiak pegatinarekin markatzea. Mesedez, ez ezazue pegatina kendu buzolitik. Gure banatzaileek eskertuko dute.





Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

☎ 943 744 112

📞 688 634 044



### King-Kongeko autobus geltokian zulo handia dago:

"King-Kongeko autobus geltokian lurra hondatuta dago. Sekulako zuloa dago aspalditik eta konpondu beharra dagoela iruditzen zaigu. Herritar asko ibiltzen da gune horretan eta hori horrela egotea lotsagarria iruditzen zaigu".



### Txankakuako geltoki atzea harriz beteta dago:

"Txankakuako autobus geltokiaren atzeko aldea harriz beteta dago hilabeteetan. Badirudi menditik erortzen direla harriak ingurune horretan, eta denak pilatzen dituzte markesinaren atzean. Iruditzen zaigu ez dela hori harriak kudeatzeko modua, eta ingurune horrek txukundu beharra duela".



### Txalo bat Errosario kalean ezpata-dantzaren horma irudia marrazteagatik:

"Haritz Dantza Taldearen enkarguz, Errosario Kaleko Ama Birjinaren ezpata-dantza irudikatu dute hain justu ere Errosario kaleko horma batean, eta oso polita geratu da. Ama Birjinaren azpiko horman egin dute, eta niri behintzat sekulako ilusioa egin dit hori ikusteak. Horrelako ekimen gehiago sustatu beharko lituzke Udalak".



## Karakate bere horretan nahi dutela adierazi dute



**G**reen Capital Develpoment enpresak Karakaterako proiektatu duen parke eolikoaren kontra elkartu ziren zapatuan dozenaka lagun Kalegoen plazan 14:00etan, Elgoibarko Karakate Bizirik plataformak deituta. Aurrez, 6:00etan, Elgoibarko Mendi Itzulian parte

hartu zuten zenbait mendizalek ere bat egin zuten aldarrikapenarekin, eta irten aurretxoan *Karakaten eolikorik ez* zioen pankartaren atzean argazkia ateratzeko tartea hartu zuten. Zapatuan, sinadurak biltzeari ere ekin zioten Karakate babesteko eta proiektua geldiarazteko eskatzeko.

## Historiaurrera bidaiatu dute Mendaroko eskola-umeek Hezur Museoaren eskutik



Mendaroko ondarea ezagutarazteko egitasmoaren barruan, arkeologia esperimentaleko saioa antolatu zuten Arno Guraso Elkartetik zapaturako, Elgoibarko Hezur Museoarekin elkarlanean. Plazan elkartu eta oinez igo ziren

Santa Kurutzera 40 bat lagun eta han historiaurreko erremintak eta teknikak irakatsi zizkien Jose Julian Marquezek. Tartean, Aizkoltxo eta Agarre kobazuloetan aurkitutako pieza arkeologikoen erreplikak ere erakutsi zizkien Marquezek.

## Altzolako haur-parkea berritzen ari dira



**H**aur-parkeak berritzeko eta mantentzeko planaren barruan, Altzolako haur-parkea birmoldatzeko lanei ekin die Elgoibarko Udalak. Joan den abenduan ibaiak gainezka egin ondoren, parkeak kalteak izan zituen eta, ondorioz, jolas guztiak ordezkatzeko dituzte eta kautxuzko zoladura berria jarriko dute. Udaletik esan dutenez, "auzoko bizilagunen eskaerari erantzunez", parkea plaza bereko gune eguzkitsuago batera eramango dute, eta egungo parkearen kokalekuan lorategi-gune bat sortuko dute. Aste honetan egungo parkea desmuntatu eta zola berria jarriko dute. Parke berria ekainaren hasieran jartzea aurreikusi dute. Obrak 110m<sup>2</sup>-ko azalera hartuko du, eta 37.292,92 euroko (+ BEZ) aurrekontua dauka.

### Pentsiodunen eta erretiratuen taberna lehiaketara atara du Elgoibarko Udala

Elgoibarko Udalak lehiaketa publikora atara du jubilatuen egoitzako taberna zerbitzua. Proposamenak aurkezteko epea maiatzaren 24an amaitzen da eta Elgoibarko Udalaren bidez egin behar da ([elgoibar.eus](http://elgoibar.eus)). Bertan daude baldintzak eta oinarriak ikusgai. Nolanahi ere, prestazioa bi urterakoa izango da, abuztuaren 16an hasita. Kafetegiaren eta jangela zerbitzuaren ordutegia 9:30etik 21:30era artekoa izango da, astelehenetik domekara.

### Udaldirako diru-laguntzak eskatzeko epea maiatzaren 27an amaituko da

Elgoibarko Udalak diru-laguntzak emateko deialdia ireki du familia ugariantzat eta guraso bakarreko familientzat, bigarren alaba edo semea inskribatzen duten familientzat edo diru-sarrerak Bermatzeko Errenta edo Gizarte Larrialdietarako Laguntzak jasotzen dituzten familientzat; beren ardurapean dituzten adingabeek haur eta nerabeentzako aisialdiko eskaintza publikoan parte hartu ahal izan dezaten. Eskaerak maiatzaren 27rako (27a barne) aurkeztu behar dira Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan edo [www.elgoibar.eus](http://www.elgoibar.eus) webgunean. Informazio gehiagorako 943 741 050 telefonora deitu behar da.

### Etorri berrientzako euskara eskolak, 'Hurbiltzen' egitasmoaren barruan



Iazko udazkenean, Udalak eta Elgoibarko Izarra topaguneak *Euskarara Hurbiltzen* izeneko egitasmoa jarri zuten abian, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, Topagunearekin eta herriko ikastetxeekin elkarlanean. Egitasmoaren helburua da Elgoibarrera etorri berri diren familiei harrera egitea, euskara erdigunean jarri, herriko beste familiekin harremanak sustatu, kulturartekotasuna eta hizkuntza aniztasuna aitortu eta elkarbizitza berdintasunean eraikitzeko. Proiektu horren baitan, bertan parte hartzen duten guraso batzuek euskara ikasteko nahia adierazi dute, eta horren haritik, euskara ikasteko taldetxo bat sortu da, 8 lagunekoa. Taldea, AISA I ikastaroa egiten ari da, otsailean hasi eta ekaina bitartean, Zabaltzen-Sartu Elkarteak Ubitarten dituen lokaletan. Interesatuak Udal Euskaltegian jaso dezakete informazio gehiago.

## Elgoibarko tren geltokiko nasak eta markesina berrituko ditu Eusko Jaularitzako Garraio Sailak

**E**lgoibarko tren geltokiko nasak eta markesina nagusia berritzeko obra lizitatu du Eusko Jaularitzako Garraio Sailak, Euskal Trenbide Sarea erakunde publikoaren bitartez. Proiektuaren barruan argitazpena hobetzea ere sartuko dute. Euskal Trenbide Saretik jakinarazi dutenez, 525.000 euroko oinarritzko aurrekontua izango du proiektuak eta lau hilabete izango dituzte lanak gauzatzeko. Obra horren harira jakinarazi dute geltokiak genero-ikuspegiarekin diseinatzeko Liburu Zurian jasotako irizpideak ere zainduko dituztela.

Obra honen arrazoi nagusiak ere azaldu dituzte pliegotan: batetik, gaur egun nasan Euskotrenen 9507900 unitateen plataformarekiko dauden kota-diferentziak kentzea, eta bestetik, markesinan dauden filtrazioak konpontzea. Obra bera fase



bakarrean gauzatu dute, modu jarraian, eta ez da bidaiarien sarbidea etengo, ezta trafikoa bera ere. Horregatik, funtzionamendu normalari eusteko, lan batzuk gauez egingo dituztela nabarmendu dute.

---

### Anfibioak ikustera joateko irteera antolatu dute Morkaikotik, hilaren 27rako

Elgoibar eta inguruotako natura ezagutarazteko egitasmoaren barruan, anfibioak ikustera joateko irteera antolatu du Morkaiko Mendizale Elkarteak maiatzaren 27rako. Ander Izagirre elgoibartarra izango dute gidari, Aranzadi Zientzia Elkarteak kide dena. IMHko aparkalekutik abiatuko dira, 20:00etan. Antolatzaileek jakinarazi dute ez

direla urrutira joango, baina aparkalekuan batuko direla ahal den auto gutxien mugitzeko. Irteera gauez izango da eta horregatik komeni da bakoitzak bere argia eramatea. Afaria norberak eraman beharko du aldean nahi izanez gero, eta irteerarako izena eman beharko da [morkaiko@morkaiko.eus](mailto:morkaiko@morkaiko.eus) helbidera idatzita edota 636 994 798 telefono zenbakira deituta.

---

### Goikolarako landa-bidea berritzeari ekin dio Mendaroko Udalak



Goikolarako landa-bidea egonkortzeko eta bidean babesak jartzeko lanak hasi ditu Mendaroko Udalak. Burdinezko errailak sartzen ari dira lur egonkorrean sei bat metroko sakoneran, horiek hormigoizko horma batez egonkortzeko. Ondoren, zorua berrituko dute eta ubideak egingo dituzte. Excavaciones Bergaretxe S.A. enpresa ari da lanok egiten eta uztaila hasierarako amaitzea dute aurreikusita. 43.018,52 euroko aurrekontua dute obrek, BEZ barne. Iaz onartu zuen Udalak urtean 150.000 euroko inbertsioa egitea landa bideak konpontzeko.



# HHko ikasleetatik hasi eta Batxilergora artekoentzako ekintzak izango dira bihar Zientzia Azokan

**Z**ientzia azoka egingo dute bihar Elgoibarren, Lekuederren, 11:00etatik 14:00etara. Guztira 38 postu jarriko dituzte Elgoibarko ikastetxeetako ikasleen proiektuekin, Bizilabe ekimenean parte hartzen duten haurren lanekin, Robotika ikastaroko ikasleen lanekin, stand profesionalekin eta Lanbide Heziketako ikastetxeen eta unibertsitateen erakuslekuetara. Elgoibarko umeek zientziaren eta teknologiararen arloan lantzen dituzten proiektuak herriari erakustea eta zientziarekin, teknologiarekin eta berrikuntzarekin lotutako balioak sustatzea eta gizartearen kultura zientifikoa handitzea dira egitasmo honen helburuak, eta horretarako loturak sortu nahi dituzte.

Postuez gain, bederatzi txoko ere izango dira, eta Dinosaurioenean ez beste guztietan hiru saio



izango dira aukeran, honako ordutegian: 11:00-12:00 / 12:00-13:00 / 13:00-14:00. Taldeak mugatuak izango dira. Mapan zehaztutako ordenean, hemen txokoak:

**1. Txikitxokoa:** Lau gune egongo dira uraren grabitatearekin, imanekin, penduluaren mugimenduetarekin, material ezberdinen ezaugarriekin eta arroken eta mineralen propietateekin esperimendatzeko. HH3tik HH5erakoentzat.

**2. Makina errazak.** Oinarrizko robotikan hasi nahi dutenentzat. Mekanismo eta makina errazak eraikitzeko txokoa Lego Technic eta BricQ Motion materialak erabilia. HH5eko ikasleentzat.

**3. Robotikarako sarrera.** Lego Spike Prime plataforma erabilia, robotikako esku desberdinak muntatzeko eta programatzeko lekua. LH1-LH2koentzat.

**4. Programazioaren oinarrizko ezagutzak.** Halocode plaka elektronikoa eta zenbait sentsore erabilia, LEDak eta soinuak programatzeko, blokeen araberrako lanabesez baliatuta. LH3-LH4koentzat.

**5. Materialen arteko erreakzioak ikusteko txokoa.** LH5 eta LH6koentzat.

**6. NFC teknologia.** Eskuko telefonoarekin ordainketak egitean NDF teknologia erabiltzen dugu, eta teknologia horretan oinarrituta arazo bat konpontzeko produktu bat diseinatzea proposatuko dute txoko honetan. DBH1 eta DBH2koentzat.

**7. Txinpartak ateratzeko esperimenduak.** Suarekin, beroarekin, errektuntzarekin edota fluidoekin esperimenduak egiteko txokoa. Ingeniari espezializatu baten laguntza izango dute. DBH3, DBH4 eta Batxi 1koentzat.

**8. Dinosaurioen etorreraren ihes gela.** Gazteek hainbat zientzia-esperimentu egin beharko dituzte jolasaren bukaerara iritsi eta kutxan dagoen sekretua argitzeko. LH3-LH6koentzat.

**9. Photocall-a.** Instagramen edo Twitterren #elgoibarzientzia traola erabilia mezua igotzen dutenen artean 100 euroko saria zozkatuko dute, bonotan.


## MIRIAM COLLS

Biologian doktorea

✍️ Ainara Argoitia

📍 Gipuzkoako Foru Aldundia. Ingurumena eta Obra Hidraulikoetako Departamentua

Ibaiak biziberritzeko Merlin proiektua aurkezten izan ziren joan zen astean Altzolan EHUko ikertzaile talde bat eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamenduko ordezkariak. Adar askoko proiektua da Merlin, baina horren barruan, hamar presa txiki bota nahi dituzte Deba ibaian, uraren fluxu naturala eta arrainen migrazioa errazteko, bai eta uholde arriskua murrizteko ere. Proiektuaren sustatzaileek adierazi dute gizarteko kolektibo askori egingo diela on ibai leheneratzeak eta horregatik onuradun izango diren kolektiboek proiektua aurkezten ari dira orain. Hurrengo aurkezpen-saioa Soraluzen izango da, ekainaren 24an, 18:30ean, kiroldegian duten hitzaldi-gelan. Arturo Elozegi, Joserra Diez eta Miriam Colls biologian doktoreek eman zituzten azalpenak Altzolan, eta Collsekin jardun gara gu, zehaztasun gehiagoren bila.



*“Ibaia zatituta egoteak ibaiak autoarazteko duen gaitasunari eragiten dio”*

### Zertan datza Merlin proiektua?

Europako ibai ekosistemen funtzioak leheneratzeko proiektua da Merlin, Europako Batasunak finantzaturakoa (22 milioi euroko aurrekontua du), eta Europa osoko 44 eragilek parte hartzen dute bertan, tartean EHUko ikertzaileek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak. Proiektu horren baitan Finlandiatik Israelerainoko 17 puntu aztertuko dira [errekak, ibaiak, zohikaztegiak eta hezeguneak], egoera naturalago batera bueltatzeko.

### Deba ibaiari ere eragiten dio proiektuak. Nola?

Ibaiak ekosistema adarkatuak dira eta bizidunak sare horretan mugitu behar izaten dira, baina gertatzen dena da ibaiak oso zatituta ditugula. Horregatik, aktiboan ez dauden hamar presa bota nahi dira Deba ibaian, presek ibaiaren

konektagarritasuna eta espezieen mugikortasuna zailtzen dutelako. Foru Aldundiko Obra Hidraulikoetako Zuzendaritzak egingo ditu obrak.

### Proiektua herritarrei azaltzen ari zarete. Estreinako saioa Altzolan egin duzue. Zer jaso duzue?

Ibai ekosistemetan ikusten ditugun arazoentzat prozesu naturaletan oinarritutako irtenbideak bilatzen ditugu guk, beti ere gizakia ekuazio horretatik kanpo laga barik. Horregatik ari gara tailer hauek antolatzen, nahi dugulako ibai ertzetan bizi direnek ibai nola ikusten duten jakin, guk oso garbi izan arren zer egin behar dugun alferrik ariko ginatkeelako bertakoek ulertu ezean. Uste dut zientzian ari garenek teknizismoak alboratu eta saiatu behar garela ibai ertzetan bizi direnekin konektatzen. Urte askoan porlanaren kultura gailendu da hemen, ibai ertzak

zolatzeke, ibaiak bideratzeko eta lurperatzeko kultura, eta orain, klima-aldaketaren agertokian, ikusten ari gara ezin dugula ibaiak hodi bihurtzen jarraitu, gero eta gehiago direlako horri lotutako hondamendiak. Ibai-lautada ibaiarentzat lagatzen badugu, uholde baten inpaktua murrizten da, eta uholde horri lotutako kalteak ere bai.

### **Konexio horrek ez du erraza ematen uholdeetan kaltetu direnekin elkartutakoan. Ala?**

Altzolan ikusi genuen beren bizipenak kontatzeko gogo handia dutela herritarrek. Hori gertatzen da zientzia komunitatea, tokian tokiko administrazioak eta herritarrak ez direlako elkarrekin jardun urte askoan.

### **Zer ezaugarritako presei eragiten die zuen proiektuak? Zeintzuk dira bota nahi dituzuenak?**

Gipuzkoa osoan 1.000 bat presa daude eta horietako %70 inguru obsoleto daude. Deba ibaian bota nahi ditugunak ere ez dira erabiltzen eta hamar dira: Altzolabekoa Elgoibarren, Santanakoa Mendaron, Soraluzeko lau, Bergaran bi eta Arrasaten beste bi [udan botako dituzte Altzolabekoa eta Mendarokoa]. Zentral hidroelektrikoei lotutako presak ustiatzeko baimenak urte askorakoak izaten dira normalean eta Soraluzen badute halako bat ere, bota ezin duguna. Presak duen saltoaren arabera, energia gehiago edo gutxiago sortzen da eta 2-5 metro arteko altuera dutenetan energia oso gutxi sortzen da. Gipuzkoan 50 bat zentral hidroelektriko daude eta lau haize-errotak beste energia sortzen dute. Egia da, orain, krisi energetikoaren testuinguruan, zentral hidroelektriko bat daukana etekin handia ari dela lortzen sortzen duen energia gutxi horrekin, baina egoera hau oso puntuala da.

### **Ibaiak zatituta ditugu. Zertan du eragina horrek?**

Kalterik agerikoena da espezieek, adibidez izokinek eta amuarrainek, ezin dutela ibaian gora egin arrautzak errutera, eta horrek espezie horien desagertzea dakarrela. Baina horrek ekosistema oso batean dauka eragina, arrain horietaz elikatzen diren hegaztiak ere badaudelako. Era berean, ibaia zatituta egoteak mikroorganismoetan ere badauka eragina. Ibaiek autoarazteko gaitasuna dute, hau da, inpaktuak xurgatzeko gaitasuna dute, baina gaitasun hori oso lotua dago beren osasunari. Eta presek ibaiaren osasunari kalte egiten diote, ez dutelako uzten behar bezalako landaredia sortzen.

*"Ibaiek autoarazteko gaitasuna dute, hau da, inpaktuak xurgatzeko gai dira, baina gaitasun hori oso lotua dago beren osasunarekin eta presek kalte egiten diote"*

Guri gertatzen zaigun gauza bera gertatzen zaie: ondo elikatuta eta osasuntsu dagoen pertsona bat hozten baldin bada, beharbada ez du hotzeriarik harrapatuko.

### **Nola eragiten dute presek uholdeetan?**

Zubien zutabeek eragiten duten bezala, presek ere bai. Presa handietan (urtegiak) kontrola dezakegu iristen den ura, bai eta urtegiaren edukiera ere, ateak zabaldua edo itxita. Baina beste hauetan, presa txikiagoetan, ura beti ari da irteten goitik, eta saltoa handia denean, uholde arriskua handitu egiten da. Ibaia hazita datorrenean, uraren maila asko igo daiteke salto hori dagoen lekuan. Horrez gain, ibaiak zolatzen ditugunean gainazala lautu egiten dugu eta urak ez du izaten bidean zeren kontra jo, ez du harririk eta topatzen, eta ondorioz, urak abiadura biziagoa hartzen du. Horregatik zubiak ere bota izan ditu urak. Garbi dago Deban bota nahi ditugun presak ez direla Artikutzan hustu zuten urtegiaren parekoak, baina garbi dugu Altzolakoa botatzeak uholde arriskua txikituko duela [Segurtasun arazoak zituelako eta ez zelako erabiltzen hustu zuten Artikutzakoa 2019an, ingurua 70 urte lehenagoko egoerara itzultzeko]. Presak zenbat eta altuera handiagoa izan, eragin positiboa handiagoa izango da. Mendarokoa kentzeak ez du alde horretan onura zuzenik izango, 0,35 metroko altuera duelako.

### **Deba ibaian bertan landaredia asko hazi da eta sedimentu asko pilatu dira. Sedimentu horiek ez diote urari lekua kendu?**

Ez. Sedimentuak beharrezko ditugu. Ibaian bizi diren mikroorganismoetako asko sedimentuetan bizi dira, eta sedimentu horiek ez baleude, mikroorganismo horiek hoditeriak hondatuko lituzkete. Gainera, ezin ditugu ibaiak tuberia bihurtu, ura eraman baino gehiago egiten dutelako.



*"Arduragabe okupatu dira erreka ondoko lurrak eta pausalekurik gabe laga ditugu urak handi datozenerako"*

**Ibaietan hobekuntzak egin direnean, Deba ibaia izan da ahaztuena Gipuzkoan. Zer osasun du orain?**

Hobera egin du, baina ziurrenik Gipuzkoako kaltetuena izango da oraindik. Batez ere kontzientziario lan handia egin behar da hemen. Ibaiari eta errekei bizkarra emanda bizi gara, eta horren adierazle garbiena Eibar da, ia erreka osoa estali dutelako. Hemengo aldean, Urolan adibidez, gehiago ikusten dute ibaia ekosistema naturaltzat, baina, hemen, arazoa baino ez dugu ikusten ibaiari lotuta. Uste zabaldua da sedimentuek uholde arriskua handitzen dutela.

**Altzolan eta Mendaron kalte handia eragin dute uholdeek. Zer da gaizki egin dena?**

Arduragabe okupatu dira erreka ondoko lurrak eta pausalekurik gabe laga ditugu ibaiak urak handi datozenerako. Ez dugu ahaztu behar ibai edo erreka ertzetan eragiten dugunean haietan eragiten ari garela. Mendaron gertatzen dena da, esate baterako, Kilimonek ezin izaten duela Deban ibairatu, biak oso hazita datozenean. Bete bai,

baina husten ez den edalontziaren adibide garbia da. Kilimon erreka berezia da. Den motzerako, leku askotatik hartzen du ura eta azkar hazi daiteke, normalean oso hazita etortzen ez den arren. Arazo hau oso zabaldua dago dena den: Lurralde Antolamendurako Planak errealitate bati bizkarra emanda egin dira. Gauzak oso gaizki egin diren beste adibide bat: Mendaroko Santanako presa ezingo da oso-osoan bota, Santanako irlatik ezkerredera dagoen zatia botaz gero 634 errepedeiri eragin diezaioketugulako. Errepidea bera ibai gainean eraiki da ia. Pentsa!

**Mendaroko kasuan badago halako inflexio puntu bat: 2011ko azaroaren 6a. Ordura arte 23 urtean ez zuen urak Garagartza auzoa hartu. Geroztik, urtero. Euri gehiago egin du? Ezberdin?**

Euria egiten duenean, lurra bustitzen joaten da, ura iragazten. Aldiz, ikusten ari garena da gero eta euri-zaparrada handiagoak egiten ari dela denbora tarte laburragoan. Iazko azarotik abendura, hiru astez atertu gabe egin zuen euria. Lau hilabetean beste euri bota zuen eta lurrak ezin izan zuen ur hori dena xurgatu. Etorriko dira halako gehiago ere, muturreko fenomeno meteorologikoak sarriago izango ditugulako.

**'Lurraldea bere osoan hartu behar da aintzat' nabarmendu zenuten.**

Bai. Uholdeei aurre egiteko neurrietan ikuspegi

hidraulikoa nagusitu da, baina arazoa ez da ibaian hasten, uholdea horrekin lotzen bada ere. Ibaia mendian hasten da eta ibaiaren portaeran harreman zuzena du mendian egiten denak. Arbolen sustraiek lurra zulatzen dute eta ura iragaztea erraztu, baina matarrasak egin dira hemen, lurraren erosioa eragin du horrek eta urak arinagoa doaz ibilgura. Arduza handiagoz kudeatu beharko genituzke mendi-hegalak ere.

### **Lurrazpiko urek eraginik izan dezakete uholde arriskuan, Mendaroko kasuan?**

Akuiferoan zabalera beti izan da bera eta lurrazpiko urez ari garenean akuifero batean konfinatutako urez ari gara. Nik ez dut ezagutzen Mendaroko akuiferoa, baina esango nuke ez duela horrekin loturarik. Erreka ertzean harea eta begetazioa balego porlanaren orde bestekontu bat litzateke.

### **Deba ibaia dragatzea ez da irtenbide bat hortaz?**

Une-unekeo soluzioa baino ez da, ibaia etengabe ari delako sedimentuak ekartzen. Diru-jario handia litzateke dragatzea, onura igartzeko etengabe dragatu beharko genukeelako, baina bestetik, ibaia dragatuz ibaiaren autodepuratzeko gaitasuna gutxituko genuke, non eta Deban. Mediterraneoan badute beste arazo bat horri lotuta: ibaietan hainbeste presa dituzte, hondartzak hondarrez husten ari direla, oztopo horietan pilatzen diren sedimentuak dragatzen ari direlako. Sedimentu horietan espezie askorentzako mantenugaia

dago, gainera, eta ikusi da sedimentuak iristen ez diren deltetan dauden arrantzu-lekuetan arrain gutxiago dagoela. Itsasoko ekosistemei ere eragiten dio honek, beraz, eta horregatik gero eta gehiago baztertzen dira soluzio horiek.

### **Zeintzuk dira ibaiantzako mehatxu larrienak?**

Edozein arrazoiengatik punturen batean arrainak hilko balitzaizkiguke espeziea bera jarriko genuke arriskuan ibaiak zatikatuta izatean. Isuri kutsagarrien kontua ere bada. Edozer botatzen dugu ibaira, urak dena eramaten duelakoan, baina urak memoria dauka eta horrek uretan bizi diren organismo guztiei eragiten die. Deba ibaian arazo handia daukagu plastikoeekin ere eta lan handia daukagu egiteko herritarrak kontzientziatzen. Bestelako egitekoak ere badaude: ibai ertzetan sareak jartzea, hondakinak uretara joan ez daitezen. Gipuzkoako Foru Aldundiak arazo bat identifikatu du eta dirulaguntza lerro bat zabaldu du Udalek garbiketa kanpainak egin ditzaten.

### **Merlin proiektuaren onura handiena zein izango da?**

Merlin proiektua ez da panazea bat, ez ditugu Deba ibaiko arazo guztiak konponduko, baina balioko du ageriago lagatzeko ibaiak dituzten arazoak. Etxea margotzen dugunean ere gertatzen zaigu; alde bat txukundu eta konturatzen gara leiho-markoak ere aldatu premia dutela. Bada, horixe.

*Altzolabeko presa, Altzolan.*





## INDARBERRITUTA ITZULI DA

---

✍ Ainhoa Andonegi  
📷 Asier Orbea / Ainhoa Andonegi

Bi urteko etenaldiaren ostean, indarberrituta itzuli da Morkaiko Eguna. 550 lagun bildu ditu aurtengoan, ume zein heldu, denak mendiaren bueltan bat eginda. 350 lagunek egin zuten Itzulia, eta 200 inguruk Itzulitxoa. Zapatuan ez zen irribarrerik falta izan Elgoibarko mendietan, eta irribarreek segida izan zuten gero Kalegoen plazan, Finalista Eguneko dominak banatzean. Beste behin ere, ez zuen hutsik egin Morkaiko Eguna. Argazki gehiago eta bideoa: [barren.eus](http://barren.eus)










## Elgoibarko euskararen historia soziala jasotzeko egitasmoa jarri dute martxan

**G**erraosteko euskalgintzaren memoria jaso eta zabaldu nahi du Elgoibarko Udalak; hau da, herriko euskararen historia soziala ezagutarazi nahi du. Izan ere, herritar asko ibili da euskarari eusten eta eragiten Elgoibarren hezkuntzan, antzerkian, dantzan, musikan, bertsolaritzan... Bai gerra aurrean, baita gerraostean ere. Oraingo honetan, gerraosteko mugimenduak eta lanak jasoko dituzte, 80ko hamarkadara bitartekoak. Badihardugu elkarteak egingo du lan hori, eta horretarako alor ezberdinetan euskara edota euskal kultura sustatzen aritu diren 15 pertsona elkarrizketatuko dituzte. Urte amaierarako haien testigantzak landu eta *ahotsak.eus* atariaren bitartez zabalduko dituzte. Urteetan, herriko ahozko ondarea jasotzeko hainbat grabazio egin ditu gure herrian Badiharduguk: 91 hiztunen testigantzak, 1.663 pasarte, 886 bideo eta



159 audio-pasarte ikusi edo entzun daitezke Elgoibarko Ahotsak egitasmoan.

Horrez gain, sasoi hartan, euskararen arloan sortu eta erabiltzen zen materiala (kartel, eskuorri, liburu...) ere eskatu du Udalak, horiek guztiak digitalki jasotzeko. Material hori Euskara Sailera (Aita Agirre kulturgunea, 1. solairua) eramateko eskaera egin du.

### Auresku txapelketako finala jokatu du Unax Ansolak

Auresku txapelketako finalak jokatu zituzten joan zen asteburuan, eta Inazio Bereziartua dantza eskolako Unax Ansolak parte hartu zuen. Arduradunek esandakoaren arabera, maila oso ona eman zuen eta bera ere gustura bueltatu zen egindako lanarekin. Txapelketa amaitu da, baina gaur zortzi, dantzaldia egingo dute txapelketan parte hartu duten 14 dantzari elgoibartarrek, Kalegoen plazan. 19:30ean izango da. (euria egiten badu, Maalako parkean).



### Erromeria egingo dute gaur, Azkueko berdegunean

Atxutxiamaiak, Udal Ludotekak eta Musika Eskolak erromeria antolatu dute gaur arratsalderako, Udalarekin elkarlanean. 16:45ean batuko dira Maalako parkean, eta kalejiran joango dira elkarrekin, Azkueraino. 17:30ean hasiko da erromeria eta 18:30ean umeentzako tailerrak eta jolasak egingo dituzte. Euria egiten badu, Maalako parkean egingo dute guztia.

### Mendaroko Ameikutz Musika Eskolan izena emateko epea zabalik dago

4 urtetik gorako umeek eman dezakete izena Mendaroko Ameikutz musika eskolan. Tailerra, Musika Hizkuntza, Abesbatza eta musika tresna desberdinak jotzen ikasteko aukera dago: Akordeoia, bateria, biolina, gitarra, panderoa, pianoa, trikitixa, txistua... Informazio gehiagorako 943 254 275 / 619 306 493 telefonoetara deitu edo [iameikutz@gmail.com](mailto:iameikutz@gmail.com) helbidera idatzi daiteke.

## Bilboko, Txantreako eta Bergarako taldeek hartuko dute parte Elgoibarko Erraldoien Topaketan

**P**andemiak bertan behera laga zuen erraldoien topaketa datorren maiatzaren 28an egingo dute. Bilboko (Ondalan), Txantreako eta Bergarako erraldoien konpartsek hartuko dituzte Elgoibarko kaleak, Elgoibarko erraldoiekin batera, eta egun osoko egitaraua prestatu dute egun hori ospatzeko. 10:00etan, Diana egongo da Mauxitxa txarangarekin; 12:00etan, Kalegoen plazan Erraldoien Erakusketa; 12:00etatik aurrera, kale animazioa Elgoibarko Dultzaineroen, Txantreako Dultzaineroen, Arrasateko Dultzaineroen, Bilboko Dultzaineroen eta Mauxitxa txarangaren eskutik. Azkenik, 17:30ean, Erraldoien kalejira.



### Udalekuak eta hainbat irteera eta tailer antolatu ditu Elgoibarko Udal Gaztelekuak

2004-2009. urteetan jaiotakoentzat udalekuak antolatu ditu Udal Gaztelekuak, eta hainbat irteera eta tailerrez gozatzeko aukera izango dute. Udalekuei dagokionez, hiru aukera desberdin eskainiko dituzte: irekia, ibiltaria eta surf ikastaroa. Irekiari dagokionez, plan desberdinak egingo dituzte bost egunez: ekainaren 27an kaja tailerra izango dute Gaztelekuan; ekainaren 28an Lasertag-era (Donostia) egingo dute irteera; ekainaren 29an; arratsalde pasa joango dira Zumaiara; ekainaren 30ean, Gamarrako parkera (Gasteiz) joango dira egunpasa, eta uztailaren 1ean, boleibol txapelketa izango dute Deban.

Udaleku ibiltariari dagokionez (uztailak 11-13), Elgoibar-Bergara-Oñati ibilbidea egingo dute, bidean bi gau lo eginda. Surf ikastaroa, Zumaian egingo dute, lau egunez (uztailak 26-29). Kasu honetan, garraioaren kostua norberak ordaindu beharko du. Era berean, hainbat irteera egingo dituzte: Mendexako abentura parkera, Logroñoko ur parkera, Zubietako paint-ballera eta Barakaldoko ongravityra.

Prezioei eta data zehatzei buruzko informazio guztia **barren.eus** atarian argitaratu dugun albistean aurkituko duzue, edo bestela, Gaztelekura deituta (943 743 228).

### Zabalik dago Bota Literak! idazle gazteen klubean parte hartzeko aukera



Idazteko zaletasuna sustatzeko, *Bota literak!* idazle gazteen taldea sortu dute. 12tik 15 urtera bitarteko neska-mutilez osatua dago, eta bi asteen behin elkartzen dira Aita Agirren, idatziz eta irakurriz elkarrekin gozatzeko. Horretarako, hainbat baliabide erabiltzen dituzte: objektuak, musika, ikus entzunezkoak... Ateak zabalik ditu taldeak, eta interesa duenak **euskara@elgoibar.eus** helbidera idatzi behar du.

## Euskaraldiaren lorpenak eta erronkak aletu ditu Kike Amonarrizek



**E**uskaraldiaren barruetan aztarka jardun zen Kike Amonarriz soziolinguista martitzenean Elgoibarren. Noiz, zergatik eta zertarako sortu zuten azaldu zuen eta lorpenak eta erronkak aletu zituen gero. Esan zuen euskara agenda sozio-politikoaren erdigunera ekarri duela Euskaraldiak, paradigma berri baten oinarriak zehaztu dituela eta ekarri duela ilusioa eta sortu duela konplizitatea, gizartearen gune gehienetara heldu den heinean. Amonarrizek argi laga zuen Euskaraldia ez dela euskarak dituen gaitz guztientzako soluzioa, baina hizkuntza-ohituretan aldaketak eta hobekuntzak ekarri dituela, parte hartu dutenen gehingoak euskara gehiago egiten duelako gaur, lehen baino. Orain, energia hori egonkortzea jarri dute erronkatzat hirugarren ediziorako, bai eta ariketaren portaeretan sakontzea, parte-hartzea hedatzea eta erabileran jauzi kualitatiboa ematea ere. Gaur zortziko alean jasoko duzue kronika osoa.

### Debabarreneko Orkestraren kontzertua domekan, Herriko Antzokian

Debabarreneko Orkestra Sinfonikoak kontzertua eskainiko du domekan (hilak 22) Elgoibarko Herriko Antzokian, 12:30ean. Orkestrako musikariak Debabarrenakoak dira gehienak eta hauxe da prestatu duten egitaraua: Jacob de Hannen *Ammerland*, Abel Morenoren *La Madrugá*, Freddy Mercuryren *Bohemian Rhapsody*, Juan Carlos Perezen Lau Teilatu eta Vangelisen 1492 La Conquista del Paraiso.

### Catan mahai-jokoaren txapelketa jokatu dute bihar Mendaron

Mahai-jokoaren jardunaldia antolatuta du Odisea elkarteak biharko, Udalaren eta Devir argitaletxearen babesarekin eta Uztargi eta Arno Guraso Elkartearen laguntzarekin. Ekitaldia frontoian izango da, 10:30ean hasita. Odisea elkarteak askotariko jolasak ekarriko ditu Mendarora eta elkartekideak eurak arituko dira joko-arauak azaltzen. Jardunaldi horren barruan, Catan txapelketarako kanporaketa ere jokatu dute. Txapelketarako hogeita laguntzako lekua egongo da eta 10 urtez gorako edonork eman ahalko du izena (adingabeek gurasoen baimena beharko dute). Txapelketa 10:00etan hasiko da. Izena emateko: [contacto.odiseaeibar@gmail.com](mailto:contacto.odiseaeibar@gmail.com).

### 'Zinemakopa' antzezlan gaur zortzi, Herriko Antzokian



Taupada antzerki taldeak *Zinemakopa* antzezlan taularatuko du gaur zortzi, Herriko Antzokian, 20:30ean. Film ezberdinetatik hartutako sekuentzien tramak antzeztuko dituzte, eta aktore ezagunen azalean jarriko dira Taupadako kideak. Aitor Guisasola, Ibai Leon, Maixus Otaegui, Sara Iriondo Otaño, Nagore Cid, Oihane Gartzia, David Rodriguez, Sohelen Vargas, Jon Iraola, Gorka Luna, Dani Zelaia Cooper eta Ruben Markina izango dira aktoreak. Edurne Lasak zuzenduko du obra eta Jose Mari Larrañagak teknikari lanak egingo ditu. Helduentzako antzezlan da, eta 75 minutuko iraupena izango du. Sarrerak salgai daude dagoeneko [herrikoantzokia.eus](http://herrikoantzokia.eus) atarian.

# KROSA BAINO GEHIAGO

✍️ Ainhoa Andonegi  
📞 Asier Orbea / Ainhoa Andonegi

Elgoibar Ikastolak antolatuta, Jose Gurrutxaga krosa jokatu zuten domekan. Adinaren eta sexuaren arabera banatu zituzten lasterketak, hamalau guztira, eta azkenekoan helduek ere hartu zuten parte. 789 lagun, kamiseta urdina soinean, herriko kaleetan korrika aritu ziren Jose Gurrutxagaren omenez. Partaide guztiek jaso zuten domina, irabazleek garaikurra, baina esatariak mikrofonotik esan zuen moduan, domekan denak izan ziren irabazle, Jose Gurrutxaga krosa, krosa baino gehigo delako. Argazki gehiago eta bideoa: [barren.eus](http://barren.eus)





## Gimnasta elgoibartarrek zilarrezko domina lortu dute Gipuzkoako txapelketan

**A**mateur mailako zein eskolarteko Gipuzkoako gimnasia erritmikoko txapelketa jokatu zuten maiatzaren 14an, Irunen. Eibarko Ipurua taldearekin lehiatu ziren hiru gimnasta elgoibartar: Uxue Etxeberria, Nora Mujika eta Jhoselin Padilla, bakarkakoan zein taldekako lehian. Hiru elgoibartarrak eta beste bi taldekide Jubenil B kategorian lehiatu ziren, Ipurua M taldearekin, eta bigarren postua eskuratu zuten. Hain justu, Ipurua P taldeak irabazi zuen urrea. Hortaz, podiumeko goreneko bi kosketara igo ziren Ipurua taldeko bi taldeak (argazkian). Bakarkako lanetan, berriz, Uxue Etxeberriak eta Nidia Olasolok osatutako bikotea, bosgarren postuan sailkatu zen. Etxeberriak mazoekin egin zuen bere ariketa eta xingola edo aroarekin Olasolok. Nora Mujikak eta Jhoselin Padillak osatutako bikoa bederatzigarren postuan sailkatu zen. Gipuzkoako txapelketan lortutako emaitzei esker, Euskadiko Txapelketan aritzeko



sailkatu dira gimnasta elgoibartarrak, taldeka. Uxue Etxeberria gainera, bakarkakoan ere arituko da Euskadiko txapelketan, mazoekin. Durangoko Landako gunean jokatuko dute jubencil eta senior mailako amateur mailako gimnastentzako Euskadiko txapelketa, maiatzaren 29an.

### Euskadiko Txapelketako Enduro proba jokatu dute Elgoibarren, estreinakoz Urruzuno bailaran



Alberto Fernandez

Euskadiko txapelketarako puntuagarria den Enduro Txapelketa antolatu du Urnokitza Kirol Klubak domekarako. Idorborben jokatu izan duten Enduro proba Urruzuno bailaran egingo dute aurrenekoz. Urnokitza taldetik azaldu dutenez, abantaila nagusi bat izango du kokagune berriak, proba ikustera gerturatzen diren lagunek autoa aparkatzeko erraztasun handiagoa izango dutela. "Albitzuri industriagunean aparkatu ahal izango dute autoa eta hortik oinez joanda bost minutura egongo da moto gidariak gertutik ikusi ahal izateko zirkuitua, Urruzunoko Elkartea dagoen inguruan". Bi zati izango ditu Elgoibarko Enduroak. Batetik, bost minutuko erlojuaren aurkako proba zirkuitu batean, eta, bestetik, 30 kilometroko ibilbidea mendian. Urruzuno bailara eta Azkarate gaina arteko mendiko ibilbideetan barrena lehiatuko dira moto gidariak. Lehen pilotua 9:45ean irtengo da eta sari banaketa ekitaldia 15:00etan egingo dute. Parte-hartzaileen artean Urnokitza taldeko bi kide daude: Igor Iriondo eta Eneko Sanz. 21 eta 24 urteko gazte elgoibartarrok estreinakoz parte hartzen ari dira Euskadiko Enduro Txapelketan. Zortzi probek osatzen dute Euskadiko txapelketa, eta Bertizaranan apirilean jokatu zutenaren ostean, bigarrenkoa izango da Elgoibarkoa.



## Kataluniako Sant Vicenç taldeak lortu du igoera Elgoibarren jokatu duten fasean

Iaz galdu zuen maila berreskuratzeko atarian gelditu da Alcortako Forging Group eskubaloia taldea. Bigarren postuan geratu ziren joan den asteburuan Olaizaga kiroldegian jokatu zuten Lehen Nazional Mailarako igoera fasean, baina lehen sailkatuarentzako bakarrik zegoen saria. Eta hori, Sant Vicenç dels Horts (Baix Llobregat, Bartzelona) herriko Fundació Handbol Sant Vicenç taldeak eskuratu zuen, Elgoibarren jokatuak hiru partidak irabazita. Lehen jardunaldian Alcortak eta Sant Vicenç-ek jokatuak partida erabakigarria izan zen. Sanloko taldeak 11-17 galdu zuen, eta hurrengo bi partidak irabazi arren (20-14 Calasanciori eta 28-21 Loyolari) ez zen nahikoa izan. Pena puntu batekin, baina jokalariek egindako lanarekin harro dago Alcortako entrenatzaile Zigor Esnaola, eta eskertuta oso, zaleengandik jaso duten babesagatik. "Zoritxarrez ezin izan dugu lortu lehen mailara igotzea, baina hiru egun hauetan Olaizagan bizi izan duguna ezin da diruarekin erosi, ez dauka preziorik. Mutilek duten dena eman dute. Sant Vicenç gu baino gehiago izan zen eta horregatik eskuratu dute lehen postua eta igoera. Guk beste bi taldeei irabaztea lortu dugu, faseko bigarren geldituz, eta oso harro gaude. Baina, batez ere, zaleak nabarmendu nahi ditut. Ikustekoa izan da nola egon den Olaizaga, eta nola animatu duten harmailetatik, zelan lagundu

eta bultza gaituzten uneoro. Horrekin geratzen naiz, Olaizagak eta eskubaloiak Elgoibarren duten indarrarekin", esan zuen Esnaolak partida amaitu berritan eginiko adierazpenetan. Igoerarik lortu ez arren, Euskadiko Ligako txapeldunari dagokion oroigarria jaso zuen Alcortako kapitain Iker Izetak domekan egin zuten sari-banaketa ekitaldian, eta beraz, izan zuten zer ospatua ere igoera fasea aho zapore on batekin amaitzeko.



## Bi ordu eta erdiko lehiaren ostean txapelak ihes egin die Arrizabalagari eta Lizarralderi

Girizia Kultur, Jolas eta Kirol Elkarteak antolatutako Euskal Herriko Pala Txapelketa Irekia jokatu dute Oiartzunen, urtarriletik hona. Nafarroa, Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako 74 bikotek hartu dute parte, -hiru mailatan banatuta gizonezkoek-, eta joan den zapatuan jokatu zituzten 38. edizioko lau finalak: gizonezkoen hirurak eta emakumezkoena. Gizonen lehen mailako finalean Gorka Lizarraldek eta Kepa Arrizabalagak osatutako bikoteak Aizpuru-Epelde bikote azkoitiarra izan zuen aurkari. Emozio eta parekotasun handiko finala jokatu zuten, eta bi ordu eta erdian lehiari aritu ostean azkoitiarrak gailendu ziren, 23-25eko emaitzarekin. Garaipenak gutxiagatik ihes egin dien arren, pozik daude Arrizabalaga eta Lizarralde, makina bat txapel irabazi baitituzte sasoi honetan. Bigarren mailako finala jokatu zuen Mikel Arrieta elgoibartarrak ere ezin izan zuen irabazlearen



txapelik jantzi. Arrietak Salegi zumaiarrearekin osatu du bikotea txapelketa honetan, eta finalean Lesakako Mitxelena eta Garbisu izan zituzten aurkari, eta Lesaka aldera joan ziren txapelak, nafarrek 16-25 irabazi baitzuten finala.

### CIMDE, Gipuzkoako Txapeldun



Alcortaz gainera, Sanloko beste talde batek ere partida garrantzitsua jokatu zuen joan den asteburuan Olaizaga kiroldegian. Gipuzkoako Txapelketako finala jokatu zuten Elgoibarko CIMDEk eta Eibar Eskubaloia taldeek, eta elgoibartarrek nagusitasunez irabazi zuten finala, 30-15eko emaitzarekin.

### 5. posturako kanporaketa jokatu du Modelos Modelberri saskibaloia taldeak

Gipuzkoako Hirugarren Mailako liga txapelketako finalerdietara sailkatzeko kanporaketa jokatu zuen Elgoibarko Modelos Modelberri saskibaloia taldeak Alegiako Elorri Aldapa taldearen aurka. Elgoibartarrek 42-45 galdu zuten Olaizagan joaneko neurketan,

eta itzulerakoan, 55-57 irabazi, Alegian. Hortaz, ozta-ozta, baina kanporatuta gelditu ziren. Orain, bosgarren postua lortzeko aukera izango du Modelberrik. Horretarako, Astigarragako Mundarro taldeari irabazi beharko dio domekan, hilak 22, Olaizagan jokatu duten partidaren, 12:00etan.



## Lagun Taldeako txirrindulari gazteak garaile Gipuzkoako erlojupeko txapelketan

**G**ipuzkoako Erlojupeko txapelketa jokatu zuten maiatzaren 14an, Ezkio-Itsason, eta Elgoibarko Lagun Taldeako txirrindulari gaztetxoak birritan igo ziren podiumaren gorenera. Gutxienez hiru eta gehienez bost laguneko taldeak osatu behar zituzten klubek erlojupekorako, eta ekipo bakoitzeko hirugarrenak markatzen zuen helmugan denbora. Elgoibarko Lagun Taldeako Aroa Saezek Zarauzko eta Donostiako taldeetako bi neskaekin osatu zuen taldea eta eurena izan zen denborarik onena infantil nesketan. Alebin mutiletan, berriz, Enaitz Iraolagoitia, Danel Garaizabal, Paul Mendikute, Eneko Lameiras eta Luken Zulaikak osatu zuten Elgoibarko taldea eta garaipena eskuratu zuten. Juniorrak ere emaitza onak ari dira lortzen eta horren adierazle da Gipuzkoako selekzioak kaleratu duen aurre-selekzioan dagoela Eneko Ortega txirrindularia. Gipuzkoako selekzioak ekainaren 12an Nafarroan egingo duten estatu mailako txirrindulari lasterketan parte hartuko du.



### C.D. Elgoibarko Erregionalak Gorengo mailan jokatu du datorren denboraldian



C.D. Elgoibar kirol taldeko gizonezkoen bigarren taldeak, Erregionalak, mailaz igotzea lortu du matematikoki. Igoera ziurtatzeko Lazkaori irabazi behar zion joan den asteburuan Mintxetan jokatu zuten partidaren eta 5-2 gailendu ziren txuri-gorriak. Lazkaotarrek sartu zituzten partidako lehen bi golak, baina atsedenaldira binako berdinketarekin joan ziren eta bigarren zatian irauli zuten erabat markagailua, beste hiru gol sartuta. Hala,

datorren denboraldian Gorengo mailan jokatu du Haundiren filialak, Haundi dagoen Ohorezko Erregional Maila baino maila bat beherago. Era berean, Haundik ligako azken partida jokatu du bihar, zapatua, Mintxetan. Zarautz izango du aurkari eta berdinketa bat behar du bigarren postua ziurtatzeko. Aurreko barikuan 0-3 galdu zuten Eibarren aurkako derbia Eibarren, eta bi puntuko aldea ateratzen dio Haundik auzoko taldeari.

**LANA**

**Eskaerak**

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. Esperientzia handia dut. Garbiketa lanak egiteko ere prest. **631 487 666**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia dut. **632 915 336**

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka, etxeko langile moduan. Gauetan eta asteburuetan lan egiteko prest. Esperientzia handia dut. **722 408 667**

Udan umeak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat. **674 663 431**

Adinekoak zaintzeko prest nago, goizetan, gauetan eta asteburuetan. Esperientzia handia dut. **643 071 900**

Adinekoak zaintzeko prest nago, esperientzia eta titulua ditut. Etxeko langile moduan, orduka eta ospitaletan gauak pasatzeko ere prest nago. **602 490 595**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanetan aritzeko prest nago. **632 061 519**

Adinekoak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Gauz ere bai. Mendekoak zaintzeko prestakuntza eginda daukat. **631 212 497**

Adinekoak zaintzeko prest nago; esperientzia eta titulua ditut. Etxeko langile moduan edo orduka aritzeko prest. **632 642 320**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago, orduka. Berehala hasteko prest. **632 415 374**

**OSPAKIZUNAK**

Sigma auzokoek bazkaria egingo dute uztailaren 23an, auzoko frontoian. Izena emateko 50€ sartu behar dira kontu honetan; uztailaren 10erako: Laboral Kutxa: **ES53 3035 0007 22 0070075881.**

**Eskaintzak**

5 eta 8 urteko bi ume zaintzeko pertsona bat behar dugu. Ekainaren 27tik uztailaren 22ra, 12:30etik 16:00etara. **616 106 260**

**GARAJEAK**

Garaje itxia alokagai Jausoro plazan. **672 422 237**

**BESTELAKOAK**

Eraztun bat aurkitu dut, ezkontzakoa dirudi. **612 462 120**

Txakurkumeak oparitzen dira. **688 642 761**

Gurpildun aulki elektrikoa salgai. Prezio onean. **618 813 975**




Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta).  
Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€.  
Iragarkiari erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:  
Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta).  
Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€.  
Iragarkiari erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.

 <p><small>Comunidad de Colegas de Administradores de Empresas, Colegas de Fidejueses, Colegas de Gestores, Colegas de Asesores</small></p>  <p><b>ROSA Mª PINTADO</b></p> <p><i>Etxaldean Administraziozako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p><b>660 969 679</b> <b>rosapf@telefonica.net</b></p>	<p><b>Bere etxebizitzaren aldamenean berak soilik erabili dezakeen patio bat dauka nire komunitatean etxejabe batek eta gainera, aurreko jabeak irekitako sarrera zuzena dauka bertara. Jabe berriak, patioaren erabilera onartua duenez, beste ate bat ireki nahi du bere etxetik patioa. Jakin nahi nuke ate hori zabaldu dezakeen ala komunitatearen baimena behar duen horretarako. Irekitzeko baimena izanez gero, egokitze edo instalazio pribatiborik egin ahal izango du patioan?</b></p> <p>Erabilera eskusiborako eskubidea aitortua izanik, komunitateak errespetatu egin behar du. Beraz, jabea, komunitatearen baimenik gabe, ate berri horretatik zein aurrez irekitatik sartu ahal izango da bere etxetik patioa. Hala ere, kaltegarriak ez diren erabilerak baino ez dira onartuko. Izan ere, erabilera berea bakarrik izan arren elementu komuna da. Beraz, ezingo du, esaterako, erabilera indibidualerako galdara bat ipini, horrek elementu komunaren kanpoko itxura aldatzen duelako. Beraz, horretarako bizilagunen batzordearen baimena beharko luke.</p> <p><b>Ondorioa: Komunitarioa den patioaren erabilera eskusiborako baimena duen etxejabeak ezin izango du instalazio edo egokitzapen pribaturik egin komunitatearen baimenik gabe. Beraz, eman ahal izango dion erabilera izaeraren araberako onartutakoa da.</b></p> <p><b>AHOLKULARI KOLABORATZAILEA</b> <b>San Bartolome, 2</b></p>
---	--

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo 688 634 044 bidalita.



Zorionak, **Sabin**, bihar 13 urte egingo dituzulako. Muxu potolo bat, etxekoen partez.



Zorionak, **Martina**, 4 urte handi bete dituzulako. Familian ondo ospatuko dugu. Denon partez, makina bat muxu.



Zorionak, **Jule!** Muxu handi bat familia osoaren partez, zure 8. urtebetetzean.



Zorionak, **Unax** eta **aitaxo!** Ostiralean eta larunbatean urteak betetzen dituzue eta ederki gozatuko dugu!



Zorionak, **hirukote!** Maiatzaren 20an, 21ean eta 25ean!!! Badaukagu zer ospatu!! Etxekoen, eta bereziki, Oinatzen partez!!!



Zorionak, **Jone**, astelehenean 6 urte beteko dituzulako. Etxekoen partez, muxu bat.

Erretratu bakarrekogurra: 4,50€.  
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO  
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK  
Erretratu bakarrekogurra: 3,50€.  
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

**LAGUNAK**  
saluberraren tesitil hagar

**6 hilabete**  
interesik gabe  
atseden hartzeko  
produktuetan!

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978  
www.textillagunak.com

**Jarri ezazu zure publizitatea  
BARREN astekarian edo  
www.barren.eus webgunean**

**943 743 704  
688 769 657**

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus  
Alto Agirre Kulturaganez, J. J. ezk. - 20870 ELGOIBAR

**EXPRESS ESKAINTZAK!**

**GBP61DSPNG  
LG COMBI  
HOZKAILUA**

**669 €**

- No Frost
- Edukiera: 374 litro
- Altuera: 186 cm
- Hatz marken kontrako grafito herdoilgaitza

**MILARBIRE**  
Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es  
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

## 20 BARIKUA

**17:30** Erromeria familian. Azkueko zelaian. Ludotekak, Atxutxiamaikak eta I. Bereziartua musika eta dantza eskolak antolatuta.

## 21 ZAPATUA

**10:00** Bigarren eskuko azoka. Mendaroko frontoian.

**10:00** Catan mahai-joko txapelketa, Mendaroko plazan. Odisea elkarteak antolatuta. Horrekin batera, mahai-joko desberdinen erakustaldia egingo dute eta probatzeko aukera egongo da.

**11:00** Zientzia azoka. Sustapen ekonomikoko Sailak antolatuta, Lekuederren.

**18:30** Jun Shiraoka argazkilaria erakusketa ikusteko azken eguna. Kultur Etxeko erakusketa gelan.

## 22 DOMEKA

**12:30** Kontzertua: Debabarreneko Orkestra Sinfonikoa. Herriko Antzokian. Egitaraua:  
1. *Ammerland* (Jacob de Haan)  
2. *La madrugá* (Abel Moreno)  
3. *Bohemian Rhapsody* (Freddy Mercury)  
4. *Lau teilatu* (Juan Carlos Pérez)  
5. *1492 La conquista del paraíso* (Vangelis)

## 26 EGUENA

**19:00** Musika Eskolako koruaren kontzertua. Herriko Antzokian.

## 27 BARIKUA

**19:30** Euskal Dantzako bakarlarien erakustaldia. Kalegoen plazan (euria bada, Maalako parkean).

**20:30** Antzerkia: 'Zinemakopa'. Taupada Antzerki taldeak taularatuko du. Euskaraz, Herriko Antzokian.



Erronka berriei aurre egiteko, aldatu beharra dago. Iritsi da **TicketBAI**.

Enpresek aurrera egiten dutenean, Gipuzkoak aurrera egiten du.

**TicketBAI**  
GIPUZKOAN

[gipuzkoa.eus/ticketbai](http://gipuzkoa.eus/ticketbai)


Euzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa

ETORKIZUNA DUEAN LA FUTURE

**Botika ordutegiak:** 09:00-13:00 7 16:00-20:00

**GUARDIAK:** Egunez: 09:00-22:00 Iluntzean: 20:00-22:00 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

<p>20 BARIKUA Egunez ■ <b>Fernandez</b> Iluntzean <b>Barrenetxea</b></p>	<p>21 ZAPATUA Egunez <b>Yudego</b> Iluntzean <b>Yudego</b></p>	<p>22 DOMEKA Egunez <b>Yudego</b> Iluntzean <b>Yudego</b></p>	<p>23 ASTELEHENA Egunez ■ <b>Oruesagasti</b> Iluntzean <b>Arriola</b></p>
<p>24 MARTITZENA Egunez <b>Barrenetxea</b> Iluntzean <b>Barrenetxea</b></p>	<p>25 EGUAZTENA Egunez ■ <b>Ibañez</b> Iluntzean <b>Yudego</b></p>	<p>26 EGUENA Egunez <b>Garitaonandia</b> Iluntzean <b>Garitaonandia</b></p>	<p>27 BARIKUA Egunez <b>Arriola</b> Iluntzean <b>Arriola</b></p>
<p>■ Fernandez: Herriko enparantza,4 Garagartza (Mendaro) 943 756 142</p>	<p>■ Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638</p>	<p>■ Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384</p>	<p>Urte guztian, gaeuz: 22:00-09:00 Esther Mendinueta Berastegui Urkizu pasealekua, 6 (Eibar) 943 820 106</p>



## Zinea

### 'Alcarrás'

21 zapatua: 19:00/22:15  
22 domeka: 19:00  
23 astelehena: 21:00

## Eta, Debabarrenean zer?

### EUSKAL JAIA. Maitzaren 27an, Eibarren.

Egun osoko egitaraua prestatu dute, Euskal Jaia ospatzeko.

- ✓ **07:00 - 19:00** Umeentzako jolasak. Eibarko Bizikleta Plazan.
- ✓ **19:30 - 21:30** GOTx Game of Txaranga elektrotzaranga.
- ✓ **22:00** MCONAK: musika ikuskizuna Untzagako karpan.
- ✓ **01:00** Mugi panderoa, Untzagako karpan.



## FAMILIENTZAKO UDALAREN DIRULAGUNTZAK, HAURREK UDAKO AISIA ESKAINTZAN (LUDOTEKA ETA ATXUTXIAMAIAKAREN ESKAINTZA) PARTE HAR DEZATEN

### NORENTZAT:

- Familia ugarientzat eta guraso bakarreko familientzat: kuota osoaren % 30.
- Aurreko familia ereduak izan gabe, bigarren seme-alabaren izen-ematea egiten dutenentzat: kuotaren % 30 (bigarren izen-emate horretan).
- Gizarte izaerako hauekako diru-laguntzaren bat (Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta edo Gizarte Larrialdiko Laguntza) jasotzen duten familientzat: kuotaren % 70.

### NON ESKATU:

- HAZen (Herritarren Arreta Zerbitzua), Santa Ana kalea, 2.
- Elgoibarko Udaleko erregistro elektronikoa ([www.elgoibar.eus](http://www.elgoibar.eus), egoitza elektronikoa).

### NOIZ ESKATU:

- Maitzaren 27ra arte.





Jose Ramon Cabrera



Iñaki Goitia

***"Behinola, ordea, udazkeneko hosto lehor baten antzera, edota ondutako fruitu baten gisara, poema bat jalki zen nire eskuetara"***

**G**urasoak musikariak izaki, betidanik izan da etxean hainbat instrumentu ezberdin: gitarra, oboea, bateria, harpa, fagota... baina nik pianoa nuen biziki gogoko. Isats-piano zahar bati belarria jarrita igarotzen nituen egunak, aitaren hatz amaigabeei begirik kendu ezinda. 5 urte besterik ez nituela hasi nintzaion arreta jartzen, hain zen miresgarria instrumentu hark sortzen zuen soinua, hain liluragarria besarkatzen ninduen doinua... Sei urte bete aurretik gurasoen hainbat abesti jo nitzakeen, zazpirekin kantu gehienak menperatu eta zortzigarren urtebetetzerako abesti propioak konposatzen nituen. Etxean Mozart txiki bat zutela aldarrikatzen zuen amak bere lagunen aurrean jotzeko eskatzen zidan bakoitzean; "edo Mozart baten handitasuna, besterik ez", argitzen zuen aitak berehala, txikitetasuna ba omen nekarren neurekin eta. Agerikoa zen gurasoen belarria heredatu

nuela. Hortaz, beste biderik ez nekusanez, musikaren doinupean dantzatzen jarri nuen nire bizimoldea.

Behinola, ordea, udazkeneko hosto lehor baten antzera, edota ondutako fruitu baten gisara, poema bat jalki zen nire eskuetara. Kasualitatez zein kausalitatez, kontua da poema harexen pozoia zainetan dudala egungo egun; poesia idaztea izan dut xede ordudanik. Izan ere, konposatzen nituen abesti haiek —sekretu aitorrezinena barrenean gorde ezin eta kanporatu beharra duen herensugearen sua bailitzan— hitz egiteko premia larri eta menderakaitza jariatzen zuten eta ez nintzen ni izango haien mututasunaren erantzule, ez horixe. Gauzak horrela, poema haiek abestien magalean etzan nituen kulunka bidez hauen basatasuna otzan zezaten. Orain ez dakit musika poetizatzen duen musikaria ala poesia musikatzen duen poeta naizen...



**Pilar  
Alvarez Arriola**

2022ko maiatzaren 13an hil zen,  
92 urte zituela.

**Ezin ikusi,  
baina bai senti,  
joan zinen arren,  
gure bihotzean  
beti zaude  
bizirik...**



**Teresa Alberdi Ajubita**

2022ko maiatzaren 10ean hil zen, 99 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Zure indarra eta adorea  
gogoan dugun bitartean  
beti izango zara  
gure artean.**

Zure familia eta lagunak




**Ana Maria Lizaso Lopetegi**

2022ko maiatzaren 16an hil zen, 73 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Gure oroimenean bizi zaren artean  
betiko izango zara gure bihotzetan.**

Etxekoak



# G R E M I O N E N G I D A

**ARROZTEGIA**

**Ulazia**  
ARROZTEGIA ETA ENBALAJEAK  
Albituri Industrialdea, 1-OI 1-P  
943 740 547



**ELEKTRIZITATEA**

**egoluz**  
ELEKTRIZITATEA S.L.  
Andres: 630 957 345  
677 512 462  
Pedro Migel Uruzuno, 14 behea  
20870 ELGOIBAR  
Bulegoa: 943 200 697  
ego.luz@hotmail.com

**ITURGINTZA**

**ongi** iturgintza  
Pedro Muguruza Etorbidea, 11  
ELGOIBAR  
Tel: 943 254 522  
Faxa: 943 254 523  
ongi@onglelgoibar.com  
www.onglelgoibar.com

**ARROZTEGIA**

**iraolagoitia**  
aroztegia - altzariek - etxe-aldaketak  
Kurutz-gain Industrialdea, 9  
20850 Mendara  
943 756 112  
636 497 485  
www.iraolagoitia.com

**LEIHOAK**

**LODOSO  
LEIHOAK**  
SIGMA INDUSTRIALDEA, 223  
lodosofj@gmail.com  
943 743 490

**ITURGINTZA**

**SANTANA**  
Igor Santana  
ITURGINTZA ETA INYERTALIZADURAE S.L.  
Urazandi kalea, 17, behea  
Elgoibar  
943 740 530 / 605 714 905  
santanaiturgintza@gmail.com

**ARROZTEGIA**

**MAR**  
ARROZTEGIA  
Olaso Industrialdea, 17 behea  
943 531 471  
609 054 978  
carpinteriamar@hotmail.com  
f

**PINTURA**

**BIOK**  
dekorazioa  
Uparitzaga, 14 - Elgoibar  
943 741 552  
606 431 120  
biok@biokdekorazioa.com

**ITURGINTZA**

**PAGOAGA S.A.**  
BULEGOA ETA ERAMUSKETA  
Pedro Migel Uruzuno, 8  
943 740 512  
Fax: 943 743 545  
denda@pagoagasua.com  
www.pagoagasua.com  
BILTEGIA  
San Antolin, 15 - ELGOIBAR  
taller@pagoagasua.com  
943 740 279

**ARROZTEGIA**

Arroztegia Carpinteria  
**ASIMA**  
Ermuaranbide, 18 - Elgoibar  
687 150 226  
650 026 631  
636 886 322  
943 744 225  
asmaaroztegia@gmail.com

**ERREFORMAK**

**ESTUDIOS  
ARRILLAGA**  
Erreanito kalea, 15 behea - Elgoibar  

- Proiektuak eta erreformak
- Sukaldeak
- Gremioen koordinazioa
- Obren zerbitzu integrala

943 744 019  
605 713 168

**IGELTSERITZA**

**A.Garate**  
Era guztietako  
igeltsaritza lanak  
egiten dituzte  
angelgarate@gmail.com  
Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkia  
Elgoibar  
**610 226 651**

**ARROZTEGIA**

**BIEVA S.L.**  
ARROZTEGIA  
Ermuaranbide, 12-14-16  
tel/fax. 943 743 116  
www.biena.eus  
info@biena.eus  
f

